



TXINGUDI
BHI

JANGELAKO

ARAUDIA

17-18 IKASTURTEA



JANGELAKO ARAUDIA

JANGELA ERABILTZEN DUENAREN ESKUBIDEAK

1. Ikasleak jangelako zerbitzua era higieniko egokian jasotzea.
2. Ikaskideen, begiraleen, nahiz jangelako langileen aldetik errespetuzko trataera izatea.
3. Egun bakoitzeko menua aldeztu aurretik ezagutzea.

JANGELA ERABILTZEN DUENAREN BETEBEHARRAK

1. Ahalegindu emandako guztia jaten.
2. Ez ohiko bazkaltiarrek jangelako zerbitzua erabili ahal izateko aurrez idazkaritzan jakinarazi behar dute, bezperako arratsaldeko 3rak baino lehen. Salbuespen gisa goizeko 9ak baino lehen adieraztea nahikoa izango da. Idazkaritzan izena ematean txartel bat jasoko du, gero jangelako arduradunari eman.
3. Jangela garaian, **Ikastolako Elkarbizitzarako Araudia errespetatuko du.**
4. Eskuak zikinak dituenak, neurri higieniko gisa, jangelan sartu **aurretik** garbitu beharko ditu.
5. Jangela barruan, ikasgelan izan behar den **errespetuzko** portaera berbera izango du.
6. Jangelan, Ikastolan bezala, **euskara** izango da erabiliko den hizkuntza.



7. Jangelako kide guztiak **errespetuz** tratatuak izango dira, inor bultzatu, kolpatu edo iraindu gabe.
8. Lasai hitz egin, hau da, zalaparta sortu gabe, lasaitasunez bazkaltzeko.
9. Begiraleak edo jantoki arduradunak kontrakorik esaten ez badu, **beti leku berean eseriko da**
10. Langileen aholkuak entzuteko prest egon behar du, horretarako egon daitezken eragozpenak baztertuz
11. Janaria eta jateko tresneria egoki erabiliko da, lurrera edo mahai gainera bota gabe. Zerbait eroriko balitz, jaso beharko lukete.
12. Janaria eta jateko tresneria egoki erabiliko da, lurrera edo mahai gainera bota gabe. Zerbait eroriko balitz, jaso beharko lukete.
13. Janari-bandejak jasotzerakoan txanda errespetatuko da, aurrekoei edo atzekoei bultza eta trabarik egin gabe.
14. Jantokitik ateratzeko begiraleek edo jantoki arduradunek adierazten duten ordenan aterako dira
15. Mahai bakoitzean mahai-arduradun bat egongo da. Hilero edo hamabostero txandatuko dira. Honen betebeharrak hauek izango dira:
 - a) Zerbait falta denean, jantoki arduradunari edo begiraleari eskatu.
 - b) Mahaiko ura bukatutakoan, altxa eta hornitu.

- c) Bukaeran mahaia zapi batez garbitu eta mahai azpikoa txukun geratzen dela ziurtatu

ARAU HAUSTEAK: HUTSEGITEAK

Hiru hutsegite mota hartuko dira kontutan: jokabide desegokia, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak eta ikastetxeko bizikidetzari kalte larria.

JOKABIDE DESEGOKIA zera izango da:

1. Ikastetxeko Elkarbizitzarako Araudian azaltzen diren jokabide desegokiak.
2. Jantokiko materiala egoki ez erabiltzeagatik kaltetzea.
3. Janaria era desegokian erabiltzea: lurrera edo mahai gainera nahita bota, basoko edo txarroko urarekin jolasten aritu, ogia lurrera bota, e.a.
4. Jantokiko langileen jarduera normaltasunez gauzatzeko neurriak ez errespetatzea, lana arinki oztopatuz: esertzeko garaian, langilearen esanetara egoterako garaian, bai janaria banatzen ari direnean, bai tokitik altxatzerakoan, bai janari-bandejak jasotzen txandaka daudenean...

IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK zera izango da:



TXINGUDI
BHI

1. Ikastetxeko Elkarbizitzarako Araudian azaltzen diren bizikidetzaren aurkako jokabideak.
2. Jantokiko kideak nahiz langileak iraintzea, mehatxatzea, diziplinaren aurkako ekintza gogor batera bultzatzea edo norberak burutzea.
3. Edozein kide jipoitzea edo jipoitzera bultzatzea.
4. Jantokiko materiala hondatzea, lapurtzea edo gaizki erabiltzeagatik egoera larri bat sortzea (beste bati bota, berarekin jo, e.a.)
5. Jantoki garaiko arduradunek, zuzendaritzaren aginduz, emandako aholkuak ez jarraitzea, (ordu horietako espazio-mugak gaindituz, liburutegiko nahiz beste aukera batzuetako baldintzak ez errespetatuz, e.a.)
6. Hiru aldiz jokabide desegokia izan.

IKASTETXEKO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA zera izango da:

1. Ikastetxeko Elkarbizitzarako Araudian azaltzen diren kalte larriak.
2. Aurrez prestatutako, edota taldean burututako bizikidetzaren aurkako jokabideak.
3. Hiru aldiz ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidea izan hiruhilabetearen barruan.

NEURRI ZUZENTZAILE HEZITZAILEAK

- Honako neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko dituzte **jokabide desegokiak**:
1. Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa egitea.
 2. Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
 3. Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea
 4. Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea, adibidez; **jantokia zikindu badute janariarekin jolasteagatik jantokia txukuntzea.**
 5. Hondatutako materialaren ordainketa edota konponketa, hutsegitea egin dutenen artean.
 6. Kalte materialen konponketa edo zikindutakoaren garbiketa lanak betetzea ikastorduetatik kanpo.
 7. Ikastolan kendutako sakelako telefonoaren itzulpena ikastetxean bertan egingo da. Gurasoek jaso beharko dute.
- Ikastetxearen **bizikidetzaren aurkako jokabideen eta larrien** neurri zuzentzaileak **ZUZENDARITZAK** hartuko ditu. Horien artean hauek izan daitezke:
1. Bizikidetzaren aurkako jokabidea bada, jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea gehienez ebaluazio batean.
 2. Bizikidetzaren aurkako kalte larria bada, jangela-zerbitzua kurtso osorako etetea

JOKABIDE DESEGOKIA ADIERAZTEKO PROZEDURA

Ikasleak **ahozko eta idatzizko kargu hartzea jasoko du bakarka**, eta gurasoei komunikatuko zaie.

Jarraituko den prozedura ondorengo hau izango da:

- Begiraleak jantoki arduradunari ekintzaren berri emango dio ahoz eta gertatutakoaren akta jasoko dute, hartutako neurri zuzentzaileak adieraziz.
Begiraleak eta jantoki arduradunak sinatuko dute.
- Jantoki arduradunak, ikaslearen bidez, idatzia gurasoei bidaliko die. Halaber, tutoreari eta Ikasketa Buruari kopia bana emango die.
- Bi egunen buruan gurasoek akta sinatua itzuliko diote berriz jantoki arduradunari, eta honek tutoreari jakinarazi ondoren, Ikasketa Buruari emango dio artxibatzeke.
- Epe hori idatzia sinaturik itzuli gabe pasatuz gero, jantoki arduradunak telefonoz jakinen gainean jarriko ditu gurasoak, idatziarekiko izandako portaera ere beste jokabide desegoki bat izan daitekeela adieraziz.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEA ADIERAZTEKO PROZEDURA



TXINGUDI
BHI

- Jantoki arduradunak edo begiraleak gertatukoaren berri adieraziko du idatziz, eta hutsegitearen balorazio eskaera hori Ikasketa Buruari emango dio.
- Ikasketa Buruak, idazkia eta behar den informazio osagarria eskuratu ondoren, gertatutakoari dagokion balorazioa eginez, neurri zuzentzaile egokiena erabakiko du.



JOKABIDE DESEGOKIA

Guraso agurgarriok,

zuen seme-alabak

Ikaslea:

Taldea:

Honelako portaera izan du:

Horregatik, **neurri zuzentzaile** hau aplikatu zaio:



Hau dela eta:

JOKABIDE DESEGOKIA bezala kontutan hartzen zaio eta berriro hau gerta ez dadin laguntza eskatu nahi dizuet eta gogoratzen dizuet horrelako portaerak errepikatzea ikastetxeko **bizikidetzaren kontrako jokabide** gisa har daitekeela.

Horrela adierazita gera dadin izenpetzen dut.

Irunen, 201 (e)ko -ren (e)(a)n.

IRAKASLEA

TUTOREA

GURASOAK



TXINGUDI
BHI



TXINGUDI
BHI

JOKABIDE BALORAPENA

Ikaslea:

Taldea:

Honelako portaera izan du:

Hau dela eta:

Zuzendaritzari horren balorapena eskatzen diot.

Irunen, 201 (e)ko aren (e)(a)n.



JANGELAKO TXOSTENA 2016-17 (INFORME DEL COMEDOR)

IZEN-DEITURAK: TALDEA: DATA:

NOLA JATEN DU	ONDO (BIEN)	ERDIZKA (A MEDIAS)	GUTXI (POCO)	EZER EZ (NADA)	OHARRAK:
	BARAZKIAK (VERDURAS)				
	LEKALEAK (LEGUMBRES)				
	BESTEAK (pasta, arroza, zopa...)				
	ARRAINA (PESCADO)				
HARAGIA (CARNE)					
JARRERA	BETI (SIEMPRE)	NORMALEAN (NORMALMENTE)	BATZUETAN (A VECES)	OSO GUTXITAN (MUY POCAS VECES)	OHARRAK:
ONDO PORTATZEN DA (SE PORTA BIEN)					
ADEITSUA DA HEZITZAILEEKIN (ES RESPETUOSO CON LOS EDUCADORES)					
ADEITSUA DA LAGUNEKIN (ES RESPETUOSO CON LOS COMPAÑEROS)					
OHARRAK:					
JANGELAKO TXOSTENA	IKASLEAREN IZENA:..... GURASOEN SINADURA:				
DATA:.....	GELA:.....				